# Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (BBI) 2012 – Adierazleen laburpena

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

adierazlea

## 1. Familiak etxebizitzaren edukitza-erregimenaren arabera. 2012

**EAE** Familiak etxebizitzaren edukitza-erregimenaren arabera EAEn. (%). 2012




**Estatua** Familiak etxebizitzaren edukitza-erregimenaren arabera Estatuan. (%). 2012



adierazlea

# 1. Familiak etxebizitzaren edukitza-erregimenaren arabera. 2012

## Estatua

Familiak etxebizitzaren edukitza-erregimenaren, Autonomia Erkidegoen eta Estatuaren arabera. (%). 2012

Kolorezko aipamena (Estatuaren portzentajearen gainetik)

| | Jabetza | Alokairua: merkatuko prezioan | Alokairua: merkatuko prezioaren azpitik | Doako lagapena |
|---|---|---|---|---|
| Andaluzia | 81,9 | 7,5 | 2,3 | 8,3 |
| Aragoi | 78,6 | 11,5 | 2,2 | 7,8 |
| Asturietako Printzerria | 84,7 | 6,2 | 1,5 | 7,5 |
| Balear Uharteak | 65,9 | 23,3 | 2,4 | 8,4 |
| Kanariak | 73,3 | 13,6 | 3,0 | 10,1 |
| Kantabria | 85,6 | 7,5 | 1,8 | 5,2 |
| Gaztela eta Leon | 82,1 | 9,0 | 3,2 | 5,7 |
| Gaztela-Mantxa | 79,3 | 12,8 | 0,7 | 7,1 |
| Katalunia | 74,4 | 16,4 | 4,0 | 5,2 |
| Valentzia (Erkidegoa) | 80,9 | 10,0 | 1,7 | 7,3 |
| Extremadura | 76,9 | 11,8 | 1,9 | 9,3 |
| Galizia | 82,6 | 9,6 | 1,3 | 6,6 |
| Madril (Erkidegoa) | 77,3 | 16,9 | 3,4 | 2,4 |
| Murtzia (Eskualdea) | 78,3 | 11,7 | 0,7 | 9,3 |
| Nafarroa (Foru Erkidegoa) | 82,4 | 12,6 | 2,5 | 2,5 |
| EAE | 87,5 | 7,3 | 2,0 | 3,2 |
| Errioxa | 81,5 | 14,9 | 0,4 | 3,1 |
| Ceuta | 75,5 | 15,9 | 3,6 | 5,1 |
| Melilla | 73,8 | 8,3 | 16,4 | 1,5 |
| **Estatua** | **79,2** | **12,0** | **2,5** | **6,3** |

## Estatua

Familiak etxebizitzaren alokairuko edukitza-erregimenaren eta Autonomia Erkidegoen arabera. (%). 2012



adierazlea

## 2. Familien bilakaera etxebizitzaren edukitza-erregimenaren arabera. 2004-2012

**EAE** Familien bilakaera etxebizitzaren edukitza-erregimenaren arabera EAEn. (%). 2004-2012




**EAE** Familien bilakaera merkatuko prezioan eta merkatuko prezioaren azpitik dagoen alokairu-erregimenaren arabera EAEn. (%). 2004-2012



adierazlea

## 2. Familien bilakaera etxebizitzaren edukitza-erregimenaren arabera. 2004-2012

**Estatua** Familien bilakaera alokairuko etxebizitzaren edukitzaren, Autonomia Erkidegoen eta Estatuaren arabera. (%). 2004-2008-2012

D.G. Daturik gabe

| | 2004 | 2008 | 2012 |
|---|---|---|---|
| Andaluzia | 11,4 | 11,1 | 9,8 |
| Aragoi | 11,3 | 12,7 | 13,7 |
| Asturietako Printzerria | 12,0 | 14,1 | 7,7 |
| Balear Uharteak | 25,2 | 29,0 | 25,7 |
| Kanariak | 18,0 | 21,5 | 16,6 |
| Kantabria | 8,1 | 10,8 | 9,3 |
| Gaztela eta Leon | 7,4 | 10,4 | 12,2 |
| Gaztela-Mantxa | 8,3 | 12,9 | 13,5 |
| Katalunia | 19,5 | 19,9 | 20,4 |
| Valentzia (Erkidegoa) | 13,0 | 10,3 | 11,7 |
| Extremadura | 10,7 | 10,2 | 13,7 |
| Galizia | 8,3 | 8,6 | 10,9 |
| Madril (Erkidegoa) | 18,3 | 17,8 | 20,3 |
| Murtzia (Eskualdea) | 12,3 | 15,2 | 12,4 |
| Nafarroa (Foru Erkidegoa) | 11,7 | 12,1 | 15,1 |
| EAE | 10,7 | 8,8 | 9,3 |
| Errioxa | 14,7 | 11,2 | 15,3 |
| Ceuta | 29,4 | 20,5 | 19,5 |
| Melilla | N.D. | 33,4 | 24,7 |
| **Estatua** | 13,9 | 14,2 | 14,5 |

adierazlea

## 3. Etxebizitzan eta haren inguruan arazoak dituzten familiak. 2004-2012

**Estatua** Etxebizitzan eta haren inguruan arazo zehatzak jasaten dituzten familiak, EAEn eta Estatuan. (%). 2004-2008-2012

**Argi naturalaren eskasia**

| | EAE | Estatua |
|---|---|---|
| 2004 | 6,5 | 14,6 |
| 2008 | 4,7 | 5,9 |
| 2012 | 4,6 | 4,4 |

**Auzokideek eragindako edo kanpoko zaratak**

| | EAE | Estatua |
|---|---|---|
| 2004 | 23,4 | 25,4 |
| 2008 | 22,6 | 22,0 |
| 2012 | 15,3 | 14,6 |

**Kutsadura eta bestelako ingurumen-arazoak**

| | EAE | Estatua |
|---|---|---|
| 2004 | 11,2 | 15,4 |
| 2008 | 16,8 | 12,9 |
| 2012 | 9,3 | 7,8 |

**Delinkuentzia edo bandalismoa**

| | EAE | Estatua |
|---|---|---|
| 2004 | 5,3 | 18,6 |
| 2008 | 9,4 | 14,9 |
| 2012 | 10,1 | 10,0 |

**Arazorik ez**

| | EAE | Estatua |
|---|---|---|
| 2004 | 67,8 | 52,9 |
| 2008 | 64,0 | 63,5 |
| 2012 | 71,9 | 74,8 |

# Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (BBI) 2012 – Adierazleen laburpena

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)

## JABETZA, EDUKITZA-ERREGIMEN NAGUSIA EAEko FAMILIETAN

EIN-ek argitaratutako Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren[1] azken datuen arabera, etxebizitza jabetza-erregimenean duten familien portzentaje handiena adierazten du EAEk (% 87,5) gainerako Autonomia Erkidegoekiko. Ordea, merkatuko prezioan dagoen alokairuko edukitza-erregimena txikiagoa da EAEn (% 7,3) Estatuaren gainerakoan baino (% 12,0).

Bilakaerari erreparatuz, edukitza-erregimenari dagokionez, EAEk 2012an erakusten duen irudia erabat ezberdina da 2011rekiko (adibidez, alokairuko etxebizitzaren portzentajeak 2,6 puntu behera egiten du, eta jabetza-edukitzak 3,5 puntu gora egiten du), duela 5 edo 6 urte baino, orduan, egoera gaurkoaren antzekoa baitzen.

Bilakaerak oszilazio adierazgarriagoak jasaten ditu alokairuko edukitza-erregimena merkatuko prezioan edo merkatuko prezioaren azpitik dagoen aztertzen bada. 2012ko eta 2011ko emaitzak alderatuz gero, aldeak adierazgarriak dira: merkatuko prezioan dagoen alokairu-erregimenak 5 portzentajezko puntu galtzen ditu (% 83,2tik 2011n % 78,5era 2012an). Merkatuko prezioaren azpitik dauden alokairuko etxebizitzak proportzio berdinean gehitzen dira (% 21,5 2012an eta % 16,8 2011n). Atzera ematen badugu begiratua, 2004. urtean irudia zeharo ezberdina da: merkatuko prezioan dagoen alokairua % 67 da eta merkatuko prezioaren azpitik dagoena % 33.

## ARAZO GUTXIAGO EAEko FAMILIETAN 2004-2012 URTEREN BITARTEAN

Bizi-baldintzei buruzko inkestak interes handiko informazioa eskaintzen du familiek dituzten zenbait arazori buruz: argi naturalaren eskasia, auzokideek eragindako edo kanpoko zaratak, kutsadura eta bestelako ingurumen-arazoak, edo delinkuentzia eta bandalismoa.

Printzipioz azpimarratu behar da bilakaera positiboa izan dela EAEren kasuan: inolako arazorik ez dutela adierazi duten etxebizitzen kopurua handiagoa da 2012an (% 72) aurreko urteekiko (2008an % 64 zen eta 2004ean % 68). Hala ere, Estatuan emandako bilakaera are adierazgarriagoa da (% 75ek adierazi dute ez dutela inolako arazorik izan 2012an; zifra hori % 64 izan zen 2008an).

Azpimarratzen den arazo nagusia auzokideek eragindako edo kanpoko zaratak dira (% 15); hala ere, arazo hori asko murriztu da aztertutako aldian (2004ean galdetutako pertsonen % 23k arazo hori adierazi zuten). Bigarrenez identifikatutako arazoa delinkuentziari eta bandalismoari lotuta dago.

## OHAR METODOLOGIKOA

EIN-ek adierazten duen bezala, Bizi-baldintzei buruzko Inkestak (BBI) 2004-2012rako eskaintzen dituen datuak kalkulatu dira hamar urtetan behin egin ohi duen Biztanleriaren eta etxebizitzen zentsuaren eragiketaren biztanleria erabiliz. Azken zentsua 2011. urteari dagokio. Informazio hori funtsezkoa da familiei zuzendutako inkestetan, lortutako emaitzak biztanleria osora jasotzeko.

2004ean inplementatu zenetik, biztanleriaren zenbatespenak barnean hartu ditu BBI-k haren kalkulu-prozesuan. Hala ere, Biztanleriaren eta etxebizitzen zentsuak biztanleriari buruzko informazio gaurkotuagoa eskaintzen du, adierazleen zenbatespenak hobetuz. Dokumentu honetan, eta EIN-ek zabaldutako datuak abiapuntutzat hartuta, biztanleriari eta etxebizitzen kopuruari buruzko datu berriak barne hartu dira, 2004tik geroztiko datuak berriro kalkulatuz eta, horrela, xehetasun eta fidagarritasun handiagoa lortuz.

Informazio gisa, 2004-2012 aldiari zehazki dagozkion datuak barnean hartzen ditu ohar honek, zenbatetsiak izan ziren gisan, 2011ko Biztanleriaren eta etxebizitzen zentsuaren bitartez jasota izan aurretik.

1. Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (BBI). 2013. Urtea. Behin behineko datuak: Estatistikako Institutu Nazionala. Europar Batasuneko herri guztietan egin ohi den familiei zuzendutako urteko estatistika-eragiketa da BBI. Estatistika bateratua da, errenta eta bizi-baldintzei buruzko estatistika komunitarioei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 16ko 1177/2003 Araudiak (EB) babestuta.

# Bizi-baldintzei buruzko Inkesta (BBI) 2012 – Adierazleen laburpena

**EAE** Familien bilakaera etxebizitzaren edukitza-erregimenaren arabera EAEn. (%). 2004-2011 (2011ko Biztanleriaren eta etxebizitzen zentsuari ez egokituta)




**EAE** Familien bilakaera merkatuko prezioan eta merkatuko prezioaren azpitik dagoen alokairu-erregimenaren arabera EAEn. (%). 2004-2011 (2011ko Biztanleriaren eta etxebizitzen zentsuaren bitartez jaso ez diren datuak)




**Estatua** Familiak etxebizitzaren alokairuko edukitza-erregimenaren, Autonomia Erkidegoen eta Estatuaren arabera. (%). (2011ko Biztanleriaren eta etxebizitzen zentsuari ez egokitutako serie historikoaren datuak)




**Informazio osagarria eskura daiteke Etxebizitzako Behatokiaren webgunean**